

Aia udaletxeko batzar aretoan arratsaldeko zazpitan bildu da UDALBATZARRA, Idazkari-kontuhartzailea bertan egonik.

Alkate-buru jaunak zuzendu du bilera eta honako udalkideak bertaratu dira:

LEHENDAKARIA: Igor Iturain Iburguren jauna

ZINEGOTZIAK :

- 1.- Mari Karmen Egurza Agirre anderea
- 2.- Ander Arrillaga Albeniz jauna
- 3.- Anxon Gomez Lorente jauna
- 4.- Naiara Esnal Huegun anderea
- 5.- Bittor Sanchez Mendizábal jauna

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA: Itziar Azurtza-Sorrondegi anderea

1.- Udal eraikinaren eraberritze obraren behin-behineko esleipena

Idazkariak kontratazio mahaiaren esleipen proposamena irakurri du. Bertan CONSTRUCCIONES ASTIARAN SL-ren aldeko iritzia jaso da.

BOZKETA: Alde: 6 bozka. (denak)

AKORDIOA:

Udalbatzak, aho batez, onartu du behin-behingo CONSTRUCCIONES ASTIARAN SL enpresari esleitzea udaletxe egoitzaren eraberritze obra kontratua.

2.- 2009 urteko aurrekontuetan kreditu aldaketak

a) Lehen kreditu aldaketa

Idazkariak azaldu du lehen kreditu aldaketa udaletxe egoitza eraberritzeko obra dela eta burutu behar dela. Aldaketa hau espainiar estatuko gobernuak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ogasun sailak eskatu dute, kontabilitate –taulen irizpideak kontuan hartuta. Lehen aldaketa honen edukia, hain zuzen ere, partida berri espresu bat irekitzean datza, estatuak luzatutako dirulaguntzaren kopuru osoa aintzat izanik.

BOZKETA: Alde: 6 bozka (denak)

AKORDIOA: Aiako Udaltzakerak, aho batez, onartu du 2009 urteko ual aurrekontuetan lehen aldaketa bideratzea ual egoitzaren eraberritze obra dela eta partida espresu bat aurikusiz 323.712,00 eurotako.

b) Bigarren kreditu aldaketa

Bigarren aldaketaren arrazoia, Idazkariak adierazi duen gisan, iaz Foru Aldundiak udalari , legez zegokiona baino diru gehiago eman izana da. Hau da, 2007 urtean egindako aurikuspenak ez ziren bete eta beraz, 2008 urtean udalak jaso zuen kopuruaren zati bat, doi doi 137.070,65.-euro Foru Aldundiari itzuli behar dio Udalak. Kontabilitate eta aurrekontu irizpideak oinarri harturik, partida berri espresu bat jaso behar da udal aurrekontuetan.

BOZKETA: Alde: 6 bozka (denak).

AKORDIOA: Aiako Udaltzakerak, aho batez, onartu du 2009 urteko aurrekontuetan bigarren kreditu aldaketa gauzatzea, Foru Aldundiari itzuli beharreko 137.070,65.-euroko diru kopurua jasoz bertan.

Bertan gertatu dena jaso gera dadin, izenpetu dut Aian, 2009ko maiatzaren 2an, Alkatearen oneritziarekin.

Aian, 2009ko ekainaren 30ean,

IGOR ITURAIN IBARGUREN jauna MK EGURZA AGIRRE anderea

ANTXON GOMEZ LORENTE jauna ANDER ARRILLAGA jauna

NAIARA ESNAL HUEGUN anderea BITTOR SANCHEZ MENDIZABAL jn.

Idazkari-kontuhartzaileak.